

8» «Konfrontazio demokratikoa» bultzatu behar dela diote Erkiziak, Abrilek eta Intxaurragak

15» Gutxienez hamabost lagun hil dira Irakeko iparraldean egindako bi erasotan

Ekialdeko Timor → Hamar urte autodeterminaziorako erreferenduma egin zela



Xanana Gusmao Independentziako heroia

Herriarren heroia da Xanana Gusmao (1946, Manatuto). Estatu Indonesiaren menpe erori zenean, ez zuen zalantzarik egin, eta borrokari ekin zion. Hala, Ekialdeko Timor independenteko lehen gobernuburu bilakatu zen 2002ko maiatzean.

Kristautasunaren aurreko tradizioen garrantzia

Tradizioak oraindik garrantzitsuak dira timortarrentzat. Gazteen artean ere bai, nahiz eta indonesiar kulturaren hezi dituzten. Baina beraiek badakite beren identitatea tradizioan dutela, arbasoen errotuetan. Max Stahl kazetariak kontatzen du Xanana Gusmao lehen ministroak erran ziola gerrillaburu zela

ez zuela nahi gerrillariak gauza horietan sinets zezaten, baina halako batean, tiroketa batean zirela, kide bat galdu zuten, eta hila zegoen ustetan aldegin zuten. Eztabaidan egon omen ziren, laguna lurperatzea itzuli behar zuten edo ez, eta horretan ari zirela, laguna agertu omen zen, bizirik. «Lulik bat nuen gainean, —objektu sakratua—, eta horregatik nago bizirik», esan omen zien.

Asier Gogortza / Xabier Erkizia Dili

Max Stahl ingelesa izan zen Ekialdeko Timorko erresistentziaren lehen irudiak grabatu zituen kazetaria. 1991n Santa Cruz hilerrian indonesiarrek egindako sarraskia grabatu zuen, eta irudi haiek mundua harat begira jarri zuten. Egun Timorko pasaporte diplomatikoa du, eta hango gazteak kazetari lanetan trebatzeko eskola zuzentzen du Dilin.

1991n, zure lehen dokumentala grabatzera etorri zinenen, zer egoera politikoa aurkitu zenuen Timorren?

Indonesiako 20.000 soldaduk baino gehiagok okupatuta zeukaten Timor, eta oraindik gehiago ziren espioiak eta mertzenarioak... Alde guztietan sumatzen zen estatu oldarkoraren presentzia. Timorko bizilagunen herena edo laurdena hila zen, 200.000 pertsona baino gehiago. Orduan inork ez zuen pentsatzen independentzia posible zenik, ezta kazetari inuzenteen ere.

Ez zen erraza izanen egoera hartan kazetari lana egitea...

Zaila zen, turista itxura egin behar nuelako. Ezin nuen kamera gorde, baina hartzen nituen irudien erabilera ezkatatu behar nuen. Santa Cruzeko sarraskia gertatu zenean, Dilin, 100 eta 500 pertsona artean hil zituzten, eta nik filmatu egin nuen. Hobi batean zintak ezkatatzea lortu nuen. Ondoren atxilotu egin ninduten, baina ezin izan zuten deus frogatu, eta libre ateratu nintzen. Ezin nion inori laguntza eskatu; hortaz, gau hartan bertan itzuli nintzen hilerria zintak berreskuratzea. Sarraskiaren zinta horiekin batera erresistentziaren irudiak zituzten bertze batzuk ere herrialdeetik ateratzea lortu nuen. Erresistentzia armatuaren lehen testigantza ziren hamasei urteren ondotik.

Nola lortu zenuen zintak ateratzea? Aireportuan 25 ordu eman nituen hegazkinaren zain, material guztia nirekin nuela. Gero dokumental bat egiteko erabili ziren irudi haiek. Sari anitz irabazi zituen, eta arras famatua egin zen herrialde askotan. Prozesuan mugarririk garrantzitsua izan zen, batez ere hainbartzeko gezur erranak zirelako horren aitzinetik... Indonesiarrek beti ukatu izan zuten he-



ASIER GOGORTZA

Max Stahl

Erresistentziaren lehen irudiak grabatu zituen kazetaria

Stahlek 1991n indonesiarrek Santa Cruz hilerrian egindako sarraskiaren irudiak jaso zituen; horiek funtsezkoak izan ziren herrialdeak independentzia lortzeko borrokan.

«NBE iritsi bitartean genozidioa egin zuten»

men hildakorik zegoela. Europatik eta Ameriketako Estatu Batuetatik hain urrutiko egonik, dena ezkatatzea lortu zuten ordu arte. Gero, ordea, huts informatiboa abantaila bihurtu zen, hurrengo hamar urteetan munduko edozein komunikabideetan Indonesia aipatzen zuten aldiro material hori bera pasatzen zuten eta. Indonesiarrek erotu egiten ziren.

Zergatik utzi zion Indonesiak Timor herri txikiari erreferenduma egiten? 1998an, Asiako krisi ekonomikoaren garaian, Indonesiak laguntza behar zuen, eta zenbait herrialderen diru laguntzen trukean Timorren erreferenduma egitea onartu zuten. Uste dut sarraskiaren

irudiek betekizun garrantzitsua jokatu zutela prozesu horretan, hainbartzeko jendea ikusi baitzuen film hura. Inoiz ez zieten erantzun ahal izan «Non daude Santa Cruzeko 250 desagertuak? Non 270 hildakoak?» galderei. Urtero NBEko Giza Eskubideen Batzordeak galdera bera egiten zien, eta bederati urtez ezin izan zuten erantzun. Justuki orain ari gara sarraskiaren arrastoak bilatzen, hemezortzi urte geroago.

Ramos Horta eta Xanana Gusmao politikariaren ahalegin diplomatikoek ere lagundu zuten erreferenduma lortzen, ezta? Bai, diplomatikariak distiratsuek ziren... Haiek bazekiten nola hitz

egin munduarekin elkartzen gaituzten balioen bidez, eta bazekiten urrutiko herrialdeekin komunikatzen, 24 urtez gerrillariak egindako borroka adibide moduan jarrita. Bertze zenbait herrialde txikitako borroka mundu zabaleko agertokian ez dutelako beren balio ikuspegia komunikatzea lortzen, baina timortarrek lortu egin zuten. **Timorren sartzea debekatu izan arren, 1999an itzuli egin zinen erreferendumari buruzko dokumentala grabatzeko asmoz.** Zerrenda beltzean nongoen, bai, baina izen bereko bertze pertsona bat nintzela sinetsarazi nien, eta

erreferenduma filmatu ahal izan nuen. Egoera oso dramatikoa izan zen NBEko tropak iritsi bitartekoa.

Beste kazetaririk ez al zengelditu? Hasieran, bai. NBEko jendearentzat eta kazetarientzat gelditzen zen azken gordelekua Timor hotela zen. Baina egun batzuk Indonesiarren mehatxuarekin pasatu ondotik, nazioarteko kazetari eta begiraleek handik ospa egin zu-

«Indonesiarrek ateratu ondotik, etxean %70 baino gehiago erre zituzten»

ten. Gau hartan bertan hoteletik irten eta mendira egin nuen. Han dozenaka mila pertsona aurkitu nituen, zuhaitzen azpian lotan, sasi artean gorderik...

Zer gertatu zen galdeketa egin zenean nazioarteko tropak iritsi bitartean?

Indonesiako Gobernuaren aldeko jarraitzaileak herrialdeetik ateratu ondotik, herrialdeetik %70 baino gehiago erre zituzten Ekialdeko Timor osoan, eta erakuntza publikoaren %90, lan zail samarra bi edo hiru astean egiteko. Horrekin erran nahi dut ongi planifikaturik zutela. Genozidioa izan zen.

Mendian zirela, filmatzen jarraitu al zenuen?

Bai, mendian nintzela erresistentziako mezulari klandestinoen bitartez bideo zintak kanpora ateratzea lortu nuen. Bost bat aldiz lortu genuen menditik zintak baldatzea, milizien lerroak zeharkatuz, hiri suntsituan barna, bonben eta tiroen artean. Australiakoen enbaxadaraino. Irudi horiek bonbak bezala ateratu ziren hemendik, dozenaka mila pertsona agertzen baitziren heriotzaren esperon.

Toki askotako jendeak, bereziki portugaldarrak, Timorko herriaren oso gertu sentitzen zirenak, irudi horiek ikusita erabat jota gelditu ziren. Gero erran didate AEBetako orduko presidentea Bill Clintonek berak, indonesiarrekin Zeelanda Berrian bildu baino 48 ordu lehenago ikusi zituela irudi hauek. Han erran zien sarraskia gelditu behar zutela.